

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Euskal ahozko literaturako generoak, haien ezaugarriak eta obrak ezagutu eta erlazionatu.	<p>1.1. Euskal ahozko literaturako generoen ezaugarriak identifikatzen ditu.</p> <p>1.2. Euskal ahozko literaturako sorkariak eta dagozkien generoak erlazionatzen ditu.</p> <p>1.3. Emandako literatura-testuak aztertuz, generoen bereizgarri diren ezaugarriak identifikatzen eta justifikatzen ditu.</p>
2. XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduak, haien ezaugarriak, autoreak eta obrak ezagutu eta erlazionatu.	<p>2.1. XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduak, haien ezaugarriak eta poemak erlazionatzen ditu.</p> <p>2.2. Emandako XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-aleak eta autoreak erlazionatzen ditu.</p> <p>2.3. Egindako erlazioak justifikatzen ditu, XX. mendeko euskal poemagintzako literatura-mugimenduei buruz ikasitakoak erabiliz.</p>
3. Ahozko euskal literaturako arlo bakoitzari dagokion edukiari (balada zahar, maite kantua, koplak zahar...) ahozko azalpenaren bitartez itxiera eman taldeka.	<p>3.1. XX. mendeko hainbat poeten lanak arretaz aztertuz, olerki bakoitzaren gaia interpretatzen du.</p> <p>3.2. Euskal ahozko literaturari buruzko ahozko testu laburretik (hitzaldi baten bideoa) beharrezko informazioa eskuratu (identifikatu, inferitu), eta emandako testu-sekuentziaren (deskribapen-sekuentzia) arabera eskema osatzen du.</p>
4. Taldeka eginiko ahozko azalpenetan hartzaileen arreta bereganatzeko estrategiak azaldu eta praktikan jarri.	Konpetentziari begira...
5. Elkarlana eskatzen duten ekimenetan jokoera asertiboa erakutsi eta lana burutzeko hartutako konpromiso pertsonalari modu arduratsuan eta autonomia maila onargarriarekin erantzun.	Konpetentziari begira...
6. Irakurzaletasuna sustatzeko "Miñan" eleberria landu. Elkarreraginean aritu ostean, ohar kritikoa gauzatu.	<p>6.1. Ikasleak eleberria irakurri eta ikuspegi kritikoa trebatzen du.</p> <p>6.2. Ikasleak haututako liburu horren harira, ohar kritikoa egiten du.</p>
7. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>7.1. Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>7.2. Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>